

laburrean

**POLONIA**

■ **Haziendak etxea bahitu dio Walesari**

LECH WALESAK eta Danuta emazteak Gdansk-en duten etxebizitza enbargatu egin du Hazienda Sailak. Haziendak ziurtatu egin nahi du lehendakari ohiak ordainduko duela bere biografia filmatzeko baimenaren truke Warnes Bros etxeak emandako diruari (milioi dolar) dagokion zerga. Haziendak bi eskaera aurkeztu zituen bahimendua egiteko, eta bigarrena ontzat eman zion eskualdeko epaitegiak. Honela, Walesari dagokion etxebizitza zatia bakarrik enbargatu da, eta ez Danutari dagokiona. X

**KANADA**

■ **NBERen Haitiko misioaren ardura bere gain hartu du**

GOBERNUAK onartu egin du Nazio Batuek egindako eskaera, Haitin dauden nazioarteko indarren agintea har dezan. Beraz, Kanada da indar hauen burua. «Bat egiten dugu Amerikako kontinentearen segurtasunarekin eta egonkortasunarekin, eta hitzeman dugu bai gure bake indarren arrakastari bai hango garapen ahaleginei helduko diegula», esan zuen Lloyd Axworthy Atzerri ministroak. X

**ISRAEL**

■ **Aldea gero eta txikiagoa da Netanyahuaren eta Peresen artean**

HAUTESKUNDEAK egiteko hiru hilabete eskas falta direla, aldea txikituz doa Benjamin Netanyahu Likud-Tsomet fronteko buruaren eta Simon Peres lehen ministroaren artean. Hauteskundeak gaur egingo balira, eta ez maiatzaren 29an, Peresek botoen % 43 jasoko litzuzke eta Netanyahu % 36. David Levy hirugarren hautagaiarentzat botoen % 6 izango lirateke. Hala ere, % 15ek ez dute oraindik erabaki botoa zeini eman. Hamas talde islamikoak duela ia astebete egingako bi atentatuek eragin dute Netanyahuaren eta Peresen aldea laburtzea. X

**SIERRA LEONA**

■ **Etorkizuna ez dago argi hauteskundeen ondoren**

ORAIN hiru hmarkada Erresuma Batutik independentzia lortu zuenetik, lehenengo hauteskunde pluralistak egin ziren aste hasieran. Baina hauteskundeek ez dute argitu etorkizuna, 1991. urtean piztutako gerra zibila hor dagoelako. Lehenengo emaitzen arabera, Alderdi Popularra, herriko zaharrena, izango da lehena. X

# Gorbatxovek ekaineko hauteskundeetan hautagai izango dela iragarri du

SESBeko azken lehendakariak «demokrata guztien batasuna» eskatu zuen atzo Moskun

**M**ikhail Gorbatxov, Sobiet Batasuneko azken lehendakaria, ekainean egingo diren Lehendakaritzarako hauteskundeetan hautagai izango da, atzo Moskun eman zuten prentsaurrekoan iragarri zuenez. Gorbatxovek «demokrata guztien batasuna» eskatu zuen hauteskunde horietan eta berea «hirugarren bidea» moduan aurkeztu zuen.



Lau urteren ostean, politikara itzuli da Mikhail Gorbatxov. MIXEL ESTEBAN

Agentziak / Mosku

GORBATXOVEK zehaztu zuen, atzo egindako aurkezpena ez dela ofiziala, oraindik ez baitu bere izena erregistratu hautagaien zerrendan. Sobiet Batasuneko lehendakari ohi hauteskundeetara eramateko plataformak 700.000 sinadura bildu ditu, baina hauteskundeetara aurkezteko gutxienez milioi bat behar ditu. Horregatik, ezin du ofizialki bere hautagaitza aurkeztu. 300.000 sinadura biltzeko denbora gutxi beharko duela esan zuen eta «alderdi demokratikoei» bat egiteko deia egin zien, erregimenak «demokratizazioaren aurkako ordena itzultzeko bidea egin baitu, eta komunistek, herritarren haserre legitimoa aprobetxatuz, iraganera itzultzeko dei egiten baitigute».

diogu Errusiari. Boterean den alderdiaren eta Alderdi Komunistaren esfortzuei esker, orainaldi okerrago baten edo iragan hobe baten artean aukeratzera bultzatu nahi baikaituzte». Gorbatxoven arabera, egoera horrek «zirkulu antzua sortu du, eta bat edo bestea garaile izan, berdindio, emaitza antzinako nomenklatura berrezartzea izango baita». Gorbatxovek hirugarren bidetzat aurkeztu zuen berea, «Errusiaren etorkizun ilunaren aurrean, argia eman lezakeen bakarra».

**Lehendakari ohiari omenaldia**

Gorbatxovek 1991ko abenduaren 25ean dimititu zuen eta dimisioarekin batera Sobiet Batasunaren desagerpena sinatu zuen. Gaur, 65 urte beteko dituen egun berean, bere jarraitzaileek omenaldi handia eskaintzeko asmoa daukate, nolabait ekainean egingo diren hauteskundeetan kanpainari ekiteko.

Atzo, bere inguruko komentariak politikoei iritzi artikuluz bete zituzten Errusiako egunkariak, Gorbatxoven hautagaitza iragarri. *Novaia Gazeta* egunkariak «politikari baten benetako balioa dimititu ondoren jakiten da», zioen atzoko editorialean Gorbatxovi buruz. X

Sobietar Estatuko agintari ohi eta Bakearen Nobel saridunak plataforma bateratua osatzeko foro demokratikoa sortzeko deia egin zuen. «Erabat faltsututako aukera eskaini digute Errusian: Boris Jeltsin edo komunistak, bide baina ez daudela sinestarazi nahi digute eta hori ez da egia, bide horiek gutxiengoa ordezkatzen dutelako soilik», azaldu zuen Gorbatxovek. «Benetako aukera eman behar

# Australiako kontserbadoreen koalizioak eta laboristek oso lehia gogorra izango dute gaurko hauteskundeetan

Paul Keating lehen ministroak puntuak irabazi ditu hauteskunde kanpainaren azken astean

Agentziak / Sidney



Paul Keating, lehen ministro laborista, hauteskunde kanpaina egiten. MICHAEL BOWERS / REUTER

DUELA bi aste Australian hauteskunde kanpaina hasi zenean, Alderdi Liberalak eta Alderdi Nazionalak osatutako kontserbadoreen koalizioak Alderdi Laboristak azken hamahiru urtetan izandako nagusitasuna apurtuko zuela uste bazen ere, azken astean, Paul Keating lehen ministroak irabazi dituen puntuak esker, inor ez da ausartzen garailea nor izango den esatera, eta gaur egingo diren hauteskundeetan oso lehia gogorra izango dutela espero dute guztiek.

Kontserbadoreen koalizioak bi puntuko aldea ateratzen zion Alderdi Laboristari herenegungo azken inkestetan, eta errore tartera kontuan hartuta, talde batek edo besteak aukera berberak dituela esan daiteke. Asteazkenean Sidneyko telebistan izan zuten eztabaidan, Keatingek argi irabazi zion John Howard liberalari, eta hurrengo egunean egin ziren

inkestak arabera, badirudi botoa nori emango dioten erabaki gabe daukatenek laboristen aldera joko dutela.

Azken sondaketek diotenez, kontserbadoreak galduz joan di-

ra kanpainaren hasieran zuten abantaila, eta egun, Keating da botoemaileentzat Gobernuazuzentzeko hautagairik egokiena. Aditu politikoen arabera, oso zaila da gaurko hauteskundeen

emaitzak aurreikustea. Batzuentzat kontserbadoreek hamahiru urte hauetan laboristek boterean izan duten monopolioa haustea lortuko dute. Beste batzuen arabera, ordea, Alderdi Laboristak gobernatzeko jarraituko du, hauteskundeetan lortuko duen garaipen estuari esker.

Alderdi txikiak erabakigarri bihurtu dira garaipena batera edo bestera joateko, eta postako botoek ere balio handia izango dute analisten arabera, hauek erabaki bailezakete laboristen edo kontserbadoreen garaipena.

Garaile nor den, Australia etorkizunean monarkikoa edo errepublikarra izango den erabaki lezake. Keatingek iragarri du, hauteskundeak irabaziz gero, erreferendumerak deituko duela Elizabeth II.a Erresuma Batuko erregina Australiako estatuburuzat jotzen duen Konstituzioa aldatzeko. Howard, aldiz, monarkiarekin aurrera jarraitzearen alde agertu da. X